


# ESKUBIDEEN GILTZA

## LLAVE A LOS DERECHOS

# NOR GARA

Arrazakeriaren Aurkako Nafarroako Koordinakundea 20 bat kolektibo eta gizarte-erakundek osatzen dugu eta Nafarroara migratutako pertsonen eskubideen alde lan egiten dugu. Gure helburuak dira Nafarroako gizartean dagoen aniztasun kulturala, linguistikoa, eta etnikoa aintzat har dadin; diskriminazio arrazistak eta xenofoboak ikusaraztea eta salatzea, eta bizikidetzaren aldeko proposamenak sustatzea. Hausnarketarako gune bat gara, elkarrekin ekintzak eta proposamenak koordinatzeko. Gure helburua da Nafarroako agenda sozial eta politikoan arrazakeriaren aurkako ekimena txertatzea eta ikaskuntzak eta esperientziak bateratzea.

# TESTUINGURUA

Kezka handia sortzen digu eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko dagoen desberdintasunak, bereziki gure gizartean prekarizatuta dauden pertsonenei eta pertsona migratuei dagokienean. Etxebizitza gaia dela eta,Nafarroako Koordinakunde Antirrazistaren ustez, erroldatzea oinarrizko eskubidea da, eta, praktikan, beste eskubide batzuk eskuratzeko giltza da, hala nola osasun-arreta, prestazioak eta diru-laguntzak, hezkuntza, egoitza-baimena migratutako pertsonen kasuan... Horrez gain, errolda oinarrizko izapideetarako baldintza bihurtu da, besteak beste banku-kontua irekitzeko edo atzerritarren behar dituzten izapideak egiteko. (1. eranskina)

Gogorarazi nahi dugu 7/1985 Legearen 15. artikuluan, erroldatzea lurralde batean bizi garen guztiok dugun eskubide eta betebehar gisa definitzen dela, eta, beraz, administrazioek bermatu behar dutela. Hala eta guztiz ere, gizarte-talde eta -erakundeok aspalditik salatu dugu Nafarroan erroldatzea pribilegio bihurtu dela, gizartearen zati batek zailtasun handiak baititu udalek eskatutako dokumentuak lortzeko.

Egoera horretan dauden taldeen artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Etxerik gabeko pertsonak edota sasi-etxeetan bizi direnak.

- Alokairu-kontraturik ez duten pertsonak etxea partekatzen dutelako, logelak azpierrentan hartzen dituzten pertsonak, bizi diren etxean erroldatzeko baimenik ez duten horiek, etab.

- Inongo dokumenturik ez duten pertsonak. Kasu batzuk nabarmenduko ditugu: Polizia Nazionalak kautelazko neurri gisa pasaportea kendu dien pertsonak, administrazio-egoera irregularrean daudelako (kasu horietan gogorarazten dugu ematen zaien fotokopia sigilatua dokumentu baliodun gisa hartu beharko litzatekeela); egoitza edota pasaportea berritzeko prozesu luzeetan dauden pertsonak; jatorrizko herrialdeetan erroldarik izan gabe pasaportea berritzeko aukera eragozten dieten pertsonak.



# KANPAINA

Horregatik, Nafarroako Koordinakunde Antirrazistak kanpaina hau abiarazten du, pertsona guztiei erroldatzeko eskubidea gauzatu dadin eta erakunde publikoek eskubide hori bete dezaten. Kanpaina hau hainbat kolektibo eta erakunde sozial eta sindikalek babesten eta sinatzen dugu. Urtean zehar, erakunde publikoekin harremanetan jarriko gara gure proposamen zehatzak helarazteko eta, era berean, alderdi politikoei eskatuko diegu arazo hau konpontzeko konpromisoa hauteskunde-programetan jartzeko. Horrekin batera, gai honi buruzko sentsibilizazio- eta salaketa-jarduerak egingo ditugu, kaleko mobilizazioak, formazioak, hitzaldiak, elkarrizketak, etab.

Kanpaina honetan 2 eskaera-zerrenda izango ditugu: bata instituzioetara bideratua eta bestea gizarte-mugimenduetara eta, oro har, gizartera.

# INSTITUZIOEI HONAKO HAU ESKATZEN DIEGU

1.- Indarrean dauden araudiak eta udalerri mailan hartutako konpromisoak betetzea, aipatutako kasuetarako aukerak eskaintzen baitituzte, hala nola: (2. Eranskina)

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, 15, 16 eta 17 artikuluak.

- 1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurraldeari buruzko Erregelamendua onartzen duena. 54.1 eta 54.3 artikulua.

- Resolución de 30 enero de 2015, de la Presidencia del Instituto Nacional de Estadística, en su art. 3.3

- 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena, INEeko Lehendakaritzarena eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarena. Udal-erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak udalentzat. 3. puntua: erroldatze-kasu bereziak.

- 15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 4.4 artikulua eta 5.c) eta 5.d) artikulua.

- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2014ko urtarrilaren 16koa.

- Nafarroako udalen mozioak/ebazpenak.

Araudi horietan, etxerik gabeko eta dokumentaziorik gabeko pertsonen egoera aitortzen da, eta beste bide batzuk eskaintzen ditu erroldatzeko, hala nola sasi-etxebizitzak, gune kolektiboak (komentuak, esaterako) edo zerbitzu publikoak (aterpetxeak, harrera-etxeak, gizarte-zerbitzuak, etab.). Kasu horietan, fikziozko etxeen figura onartzen da erroldatzeko bide onargarritzat. Gainera, argi uzten du udal-errolda osatzea, mantentzea, berrikustea eta zaintzea Udalari dagokiola, Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.

2. **Udalei** eskatzen diegu neurri zehatz hauek har ditzatela erroldatzea errazteko:

2.1 Nortasuna egiaztatzeko zailtasunak dituzten egoeretan:

Legea aplikatzea eta agiriak AIZ (NIE) gisa aitortzea: lapurtutako edo galdutako identifikazioaren fotokopia, salaketarekin batera; edo, kasuan kasuko, kontsulatuak pasaportea berritzeko eskaeraren egiaztagiria; pasaportea ordezten duen inskripzio-zedula -arrazoiren batengatik beren herrialdeak dokumentatzen ez dituen atzerritarrei pasaportearen fotokopia zigilatua ematen zaie-¬; Polizia Nazionalak pasaportea kentzen dienean entregatzen den egiaztagiria.

Iraungita dauden pasaportea eta AIT (Atzerritarren Identifikazio Txartela) onartzea eskatzen dugu. Izan ere, agiri horien helburua pertsonaren identitatea egiaztatzea da, eta iraungipenaren kudeaketa administratiboak ez du pertsonen identitatea aldatzen; gainera, AIZ (Atzerritarren Identifikazio Zenbakia) baliozkoa da, indarrean dagoen egoitza-baimen batekin lotuta dagoen edo ez kontuan hartu gabe.

2.2 Alokairu-kontratu bat egiaztatzeko zailtasun-egoeretan/etxebizitzaren egiaztagiriak:

• Legea aplikatzea, eta oinarrizko auzo-unitateek /gizarte-zerbitzuek egiten dituzten txostenak onartzea, pertsonak bizi diren lekua egiaztatzen dutenak, kontuan hartuta erroldatuta ez dauden pertsonek auzo-unitateen arreta lortzeko zailtasunak dituztela. Pertsona guztiek gaua igarotzen duten tokiak eta azpietxeak aintzat hartzea, horixe baita haien ohiko lekua, eta leku horietan erroldatzea, hala nola orubeetan edo hondakinetan, posta-helbide bat zehaztuz pertsonarekiko komunikazio-bidea ziurtatzeko.

Ildo horretan, gogoratu behar da pertsona guztiak artatzeko betebeharra dagoela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eta dagozkien Auzo Unitateetan, erroldatuta izan ala ez. Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 4. artikuluko 4. puntuan dio Gizarte Zerbitzuen

hartzaileak izan daitezkeela. Honela dio: “Nolanahi ere, Nafarroan larrialdi pertsonaleko, familiako larrialdi edo gizarteko larrialdi egoeran dauden pertsonek egoera horri aurre egitea ahalbidetzen duten gizarte-zerbitzuen sistemako prestazioak eskuratu ahal izango dituzte. Gizarte-zerbitzuetako profesionalek egoera hori baloratuko dute larritasunaren, prekarietatearen eta iraunkortasunaren arabera. “

• Pertsona bat helbide jakin batean bizi den egiaztatzea, betiere interesdunak hala eskatuta, langile publikoak erabiliz, hala nola gizarte-zerbitzuak edo udaleko agenteak (horretarako polizia-agenteen erabilera saihestuz, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen ahultasun juridikoa eta kanporaketetan polizia-kidegoen lankidetza dela eta).

• Gune instituzionalak erroldatze-gunetzat hartzea, udal-aterpetxe, udal-jangela, auzo-unitate, bazterkeria handiko zerbitzu, Emakumearen Arretarako Udal Zerbitzu edo udaletxean bertan.

• Gaur egungo legeetan jasota dauden aurreko eskariez gain, eskatzen dugu kontuan hartzea lekukotzak, pertsonaren egungo etxebizitzaren gaineko erroldatzea egiteko, auzotarren edo etxebizitza partekatzen duten pertsonen testigantzak, edo pertsonak ohi duen beste erakunde batzuenak, hala nola eskola, osasunetxea, gizarte-erakundeak edo beste zerbitzu batzuk.



3. **Nafarroako Gobernuari** eta, bereziki, Eskubide Sozialei eskatzen diegu gai hau konpontzeko beharrezko aldaketak egitea. Besteak beste, honako hauek proposatzen ditugu:

- Auzo Unitateetara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara errolda-baldintzarik gabe sartzea bermatzea, egungo araudiak aurreikusten duen bezala.

- OGZetako eta AUetako langileei erroldatzearen arloko informazioa eta prestakuntza ematea, erroldatzeko txostenaren prozeduraren bidez hori errazteko

- Nafarroako Gobernuaren menpeko gune instituzionaletan herritarrei erroldatzeko bidea prestatzea, zuzeneko arreta ematen duten zerbitzuetan, hala nola Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan (OGZ), Nafarroako Berdintasun Institutuan (NABI), etab...

- Nafarroan bizi diren pertsona guztiei erroldatzeko aukera bermatzea, eskubidea blindatzen duen foru-araudi propioaren bidez, eta udal-araudien babeserako eta erreferentziarako balio izatea.

- Administrazioei baliabide nahikoak eta egokiak ematea, Nafarroan bizi diren pertsona guztiek eskubide eta zerbitzu berberak izateko; horretarako, hizkuntza maila, ahozko eta idatzizko alfabetatze edota alfabetatze digitalerako sarbide mekanismoak egokitzea.

- Erroldatzea betekizun baztertzaile gisa ezartzen duten erakunde pribatuen (bankuak, etxe-agentziak) jarreren jarraipena eta zuzenketa egitea, praktika horiek kontrolatzeko, hautemateko eta salatzeko mekanismoak ezarriz.

- Halaber, administrazio publikoen diskriminazio-praktiken jarraipena eta zuzenketa egitea, hala nola Nafarroako osasun-sistemarena; izan ere, Osasun Txartel Indibiduala (OTI) eskuratzeak 3 hilabeteko antzinatasuna eskatzen du erroldan. Gogoratu behar da OTIa eskuratzeko baldintzak direla, besteak beste, benetako bizilekua estatuan izatea, antzinatasunik gabe, eta erroldatzeaz gain, zuzenbidean onartutako beste froga batzuk ere baliozkoak direla.

4. **Alderdi politikoei** honako hau eskatzen diegu:

- Pertsona guztien eskubideak bermatuko dituzten berdintasun-politiken alde egiteko, haien administrazio-egoera, jatorria edo egoera sozioekonomikoa edozein dela ere.

- Diskurtso arrazistak eta xenofoboak detektatzeko eta salatzeko mekanismoak ezartzeko, gorroto-diskurtsoak eta topikoak sahiestuz.

- Erroldatzeko eskubidea hauteskunde-programetan sartzeko eta arazoa konpontzeko benetako politikak sortzeko.

- Garatzen ditugun proposamenak haien udaletara eramateko, eta konpromisoa hartzeko horrelako ekimenak babesteko, benetako eskubide-berdintasuna bermatzeko.



**Mugimendu sozialei eta gizarteari** honako hau eskatzen diegu:

- Kanpaina babesteko manifestu hau sinatuz.

- Urtean zehar egingo ditugun jardueretara joateko eta sare eta hedabideetan zabaltzeko.

- Comprometerse a conocer y dar visibilidad a las realidades que existen en vuestros barrios, entornos, pueblos, ciudades de las personas atravesadas por discriminaciones que se traducen diariamente en vulneraciones de sus derechos básicos.

- Pribilegioak eta diskriminazioak azalarazteko eta eskubideak aitortzeko lana sustatzeko.

- Erroldatzeko eskubidea eskaintzen duten etxebizitzen alokairua sustatzeko edota erroldatzeko eskubidea errazteko, sektore zaurgarriei lehentasuna emanez, hala nola pertsona migratuei edota arrazializatuei.

- Auzoetan eta herrietan, herri-mugimenduetarako eta elkarri laguntzeko guneak sortu eta babesteko, konponbideak behetik eta berdinen artean sustatzeko.

Zalantzarik edo iradokizunik izanez gero, jar zaitezte harremanetan Nafarroako Koordinakunde Antirrazistarekin.



I. ERANSKINA:

Erroldatua izatea eskatzen duen zerbitzu eta eskubide batzuen zerrenda

- Oinarrizko Errenta Bermatua.
- Gizarteratzeko programa espezifikoak Iruñean erroldatuta daudenentzako aterpea (Iruñeko Etxerik Gabekoendako Programa).
- Nafarroako Enplegu Zerbitzurako sarbidea.
- Familia-medikua eta CIPNA
- Ikasketa ofizialetarako matrikula eta bekak.
- Etxebizitza-laguntzak eskuratzea.
- Etxebizitza babestua, alokairuko edo erosketako laguntza eskuratzea.
- Udalaren aisialdiko jarduerak.
- Udal-hauteskundeetan botoa ematea Espainiak akordioa duen herrialdeetako herritarrentzat.
- Liburutegiko txartela, udaleko kirol eskola, udaleko igerilekua eta antzeko udal zerbitzuetarako sarbidea.
- Ezkondu eta izatezko bikotearekin bizi direla frogatzea.
- Argiaren bonu soziala.
- Banku-kontu bat irekitzea.
- Auto bat, merkataritza-lokal bat edo legezko erregistroren bat behar duen beste edozein ondasun erostea.
- Egoitza- eta lan-baimenak eskuratzea.
- Mendekotasunerako laguntza-eskaera.
- Errenta-aitorpena edo errenta-ziurtagiri negatiboa.
- Agiri pertsonalak eskatzea (NAN, gidabaimena, zirkulazio-baimena, etab.)
- Doako laguntza juridikoa eta ofiziozko abokatua eskatzea.
- Bikote egonkorra eratzea Nafarroako Erregistro bakarrean.
- Diruz lagundutako terapia-komunitateak.
- Nafarroako Gobernuaren edozein laguntza.
- Atzerritartasunerako aukera, hainbat eskaera.
- NANa eta pasaportea eskuratzea.
- Kideak programan sartzea.
- OGZ eta AUetarako sarbidea, baita horiek ematen dituzten baliabideetara ere.
- Mendekotasun-eskaera.
- Nafarroako egoitzetarako sarbidea
- PNCrako aukera.

ANEXO I:

El listado de algunos de los servicios y derechos que requiere el empadronamiento

- Renta Garantizada
- Programas específicos de inclusión (como el Programa de Personas Empadronadas del Centro de Personas sin Hogar de Pamplona)
- Acceso al Servicio Navarro de Empleo
- Médico de cabecera y CIPNA
- Matrícula a estudios oficiales y becas
- Acceso a ayudas de vivienda
- Acceso a la vivienda protegida, de alquiler o compra
- Actividades de ocio municipales
- Votar en las elecciones municipales para los ciudadanos de los países que España tiene acuerdo de reciprocidad.
- Acceso a servicios municipales tipo carnet de biblioteca, escuela municipal de deportes, piscina municipal...
- Contraer matrimonio y demostrar convivencia en pareja de hecho.
- Bono social de la luz.
- Apertura de una cuenta bancaria.
- Comprar un coche, un local comercial o cualquier otro bien que requiera de algún tipo de registro legal.
- Acceso a autorizaciones de residencia o residencia y trabajo
- Solicitud de ayuda para la dependencia
- Declaración de la renta o certificado negativo de renta
- Solicitud de documentos personales (DNI, carnet de conducir, permiso de circulación, etc.)
- Solicitud de asistencia jurídica gratuita y abogado/a de oficio.
- Constitución de pareja estable en el Registro único de Navarra
- Comunidades terapéuticas subvencionadas.
- Cualquier ayuda del Gobierno de Navarra.
- Acceso a extranjería, solicitudes varias.
- Acceso a DNI y pasaporte.
- Acceso a KIDEAK.
- Acceso a SSB Y UB, así como los distintos recursos que ellos facilitan.
- Solicitud de Dependencia.
- Acceso a residencias en Navarra.
- Acceso a PNC.

Que pedimos **a los movimientos sociales y a la sociedad**:

- Apoyar la campaña firmando este manifiesto

- Acudir a las actividades que realizaremos durante el año y dar difusión en vuestras redes y medios.

- Comprometerse a conocer y dar visibilidad a las realidades que existen en vuestros barrios, entornos, pueblos, ciudades de las personas atravesadas por discriminaciones que se traducen diariamente en vulneraciones de sus derechos básicos.

- Promover un trabajo de reconocimiento de privilegios, derechos y discriminaciones.

- Promover el alquiler de viviendas con derecho a empadronarse y/o facilitar el derecho de empadronamiento dando prioridad a los sectores vulnerados de la sociedad como personas migradas y/o racializadas.

- Crear y apoyar a los espacios de movimientos populares y de apoyo mutuo en los barrios, pueblos. Promover soluciones desde abajo y entre los/las iguales.

- Para cualquier duda o sugerencia no dudéis en poneros en contacto con la Coordinadora Antirracista Navarra.



4. Pedimos **a los partidos políticos**:

- Apostar por unas políticas de igualdad que garanticen el acceso de derechos a todas las personas independientemente de su situación administrativa, origen o situación socioeconómica.

- Establecer mecanismos de detección y denuncia de discursos racistas y xenófobos, no haciendo uso de discursos de odio, cayendo en los tópicos que lo cimientan.

- Incluir el derecho al empadronamiento en sus programas electorales y crear políticas reales para solucionar el problema.

- Llevar las propuestas que desarrollamos hacia los ayuntamientos en los que tienen representación y comprometerse a apoyar las iniciativas que como esta garanticen la igualdad de derechos efectiva.



3. **Al Gobierno Navarra** y específicamente a Derechos Sociales exigimos realizar cambios necesarios para solucionar este tema, entre ellos proponemos:

- Garantizar el acceso sin requisito de padrón a las Unidades de Barrio y Servicios Sociales de Base, tal y como prevé la normativa actual.

- Comunicar y formar a las trabajadoras/es de los SSB y UB en materia de empadronamiento, para facilitar el acceso al mismo, a través del procedimiento de informe para el empadronamiento.

- Habilitar la vía de empadronamiento en los espacios institucionales dependientes del Gobierno de Navarra que ofrecen servicios de atención directa a la ciudadanía, como los Servicios Sociales de Base (SSB), el Instituto Navarro de Igualdad (INAI), etc...

- Garantizar el acceso al empadronamiento de todas las personas que viven en Navarra a través de normativa foral propia que blinde el derecho y sirva de amparo y referencia a las normativas municipales de acceso al mismo.

- Dotar a las Administraciones de recursos suficientes y adecuados para garantizar el acceso en igualdad de condiciones a los derechos y servicios de todas las personas que viven en Navarra, adaptando los mecanismos de acceso a los diversos niveles lingüísticos, de alfabetización oral y escrita y/o digital.

- Realizar un seguimiento y subsanación de prácticas discriminatorias de entidades privadas (bancos, inmobiliarias…) que establecen el empadronamiento como requisito excluyente, estableciendo mecanismos de control, detección y denuncia de estas prácticas.

- Realizar también un seguimiento y subsanación de prácticas discriminatorias de administraciones públicas, como el sistema navarro de salud, que exige 3 meses de antigüedad de padrón de forma general para acceder a la Tarjeta Individual Sanitaria (TIS). Cabe recordar que los requisitos de acceso a la TIS son, entre otros, acreditar la residencia efectiva en el estado, sin antigüedad, y que además del empadronamiento, existen otras pruebas admitidas en derecho igualmente válidas.

Cabe recordar en este sentido la obligatoriedad de atender a todas las personas con independencia de si están o no empadronadas en los Servicios Sociales de Base y en las Unidades de Barrios correspondientes. La LF 15/2006 de Servicios Sociales de 14 de diciembre, que en el punto 4 del Artículo 4 especifica que pueden ser personas destinatarias de los Servicios Sociales “En todo caso, las personas que se encuentren en Navarra en una situación de urgencia personal e indigencia, familiar o social, podrán acceder a aquellas prestaciones del sistema de servicios sociales que permitan atender dicha situación. Esta situación será valorada por los profesionales de los servicios sociales en función de su gravedad, precariedad y perentoriedad.”

• Reconocimiento de verificación de si una persona vive en una dirección, siempre y únicamente a petición de la persona interesada, utilizando trabajadores públicos como servicios sociales, o agentes de ayuntamiento (evitando el uso de agentes de Policía para este fin, dada la vulnerabilidad jurídica de las personas en situación administrativa irregular y la colaboración de los distintos cuerpos policiales en materia de expulsiones).

• Reconocer los espacios institucionales como un punto de empadronamiento como albergue municipal, comedor municipal, unidad de barrio, servicio de alta exclusión, Servicios Municipales de Atención a la Mujer, o en el propio ayuntamiento.

• Aparte de las demandas anteriores que ya están incluidas en las leyes actuales, demandamos la validación de los testimonios para realizar el empadronamiento sobre donde es la vivienda actual de la persona, reconociendo los testimonios del vecindario o de personas con quienes comparten la vivienda, o de instituciones como escuela, centro salud, entidades sociales u otros servicios, donde suele acudir la persona.



En estas normativas se reconoce la situación de personas sin hogar y personas sin documentación y ofrece algunas vías alternativas como empadronamiento en infraviviendas, espacios colectivos como conventos, o en servicios públicos como albergues, pisos de acogida, servicios sociales etc., reconociendo la figura de los "domicilios ficticios" como vía admisible de empadronamiento en estos casos. Además, deja claro que la formación, mantenimiento, revisión y custodia del Padrón municipal corresponde al Ayuntamiento, de acuerdo con lo que establezca la legislación del Estado.

2. Solicitamos **a los ayuntamientos** que tomen las siguientes medidas concretas para facilitar el empadronamiento:

2.1 En situaciones de dificultad de acreditación de documento de identidad:

Aplicar la ley y reconocer los documentos como NIE, fotocopia de identificación sustraído o extraviado, acompañado de la correspondiente denuncia si está perdido o solicitud de renovación a los consulados correspondientes, cédula de inscripción que sustituye al pasaporte y se concede a aquellos extranjeros que por alguna razón su país no les documenta, la fotocopia sellada del pasaporte que se entrega en casos de retirado de pasaporte por la Policía Nacional.

Solicitamos ampliar el reconocimiento de los pasaportes y TIE (Tarjeta de Identificación de Extranjeros) independiente de su caducidad, considerando que el objetivo de este documento es verificar la identidad de la persona y la caducidad es una gestión administrativa que no supone un cambio en la identidad de las personas además de que el NIE (Número de Identificación de Extranjeros) es igualmente válido independiente de si está vinculado con un permiso de residencio en vigor o no.

2.2 En situaciones de dificultad de acreditación de un contrato de alquiler/ documentación acreditativa de la vivienda:

- Aplicar la ley y reconocer los informes que expiden las unidades de barrio/servicios sociales de base sobre la verificación del sitio donde vive las personas; poniendo atención a que las personas que no están empadronadas tienen dificultad en acceso a unidad de barrios. Reconocimiento de infraviviendas y sitios donde pernoctan las personas sintecho como es el sitio habitual de las personas y realizar el empadronamiento en estos sitios como solares o ruinas, etc. concretando una dirección de correo para asegurar la vía de comunicación con la persona.

# QUE PEDIMOS A LAS INSTITUCIONES:

1.- Cumplir las normativas vigentes y los compromisos adquiridos a nivel municipal que ofrecen posibilidades para dichos casos, como: (Anexo 2)

- La Ley 7/1985, de 2 de abril en sus art. 15, 16 y 17
- El real decreto 1690/1986, de 11 de julio, por el cual se aprueba el Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, en su art. 54.3
- Resolución de 30 enero de 2015, de la Presidencia del Instituto Nacional de Estadística, en su art. 3.3
- Resolución de 17 de Febrero de 2020 de la presidencia del INE y de la Dirección General de Cooperación Autonómica y Local.
- Ley Foral 15/2006 de Servicios Sociales de 14 de diciembre, en sus arts. 4.4 y art. 5 c) y d).
- Resolución del Parlamento Europeo, de 16 de enero de 2014.
- Propuestas/Mociones/Resoluciones de ayuntamientos de Navarra.

# LA CAMPAÑA

Por ello desde Coordinadora Antirracista Navarra lanzamos una campaña con el fin de hacer efectivo el derecho de empadronamiento a todas las personas y hacer cumplir la obligación de las instituciones a hacerlo efectivo. Contamos con las firmas de los colectivos y entidades sociales y sindicales que apoyan la campaña. Durante el año vamos a contactar con las instituciones para hacerles llegar nuestras propuestas concretas y exigir a los partidos políticos que pongan en sus programas electorales el compromiso para solucionar este problema. En paralelo, llevaremos a cabo actividades de sensibilización y denuncia sobre este tema con movilizaciones en la calle, formaciones, charlas, entrevistas, etc...

En esta campaña tendremos 2 listas de demandas: una orientada a las instituciones y a otro a movimientos sociales y a la sociedad en general.

Dentro de estas situaciones destacamos:

- Las personas sin hogar y/o que viven en infraviviendas.

- Las personas que no pueden tener un contrato de alquiler porque comparten casa o/y la persona propietaria (o persona que subarrienda habitaciones) no puede/quiere hacer un contrato, ni les autoriza a empadronarse en ese domicilio que efectivamente es su lugar de residencia.

- Las personas que no tienen un documento de identidad en vigor. Destacamos algunos casos: personas a las que la Policía Nacional les ha retirado su pasaporte como medida cautelar al encontrarse en situación administrativa irregular (en estos casos recordamos que la fotocopia sellada que se les entrega debe constar como documento válido); aquellas que se encuentran en procesos largos y costosos de renovación de su residencia o/y su pasaporte; aquellas cuyos países de procedencia les impiden la posibilidad de renovar su pasaporte sin tener padrón.



# CONTEXTO

Nos preocupa profundamente la desigualdad que existe en nuestra sociedad en acceder a los derechos y servicios para personas que están precarizadas y especialmente las personas migradas y racializadas. Dentro del tema de vivienda desde la Coordinadora Antirracista Navarra entendemos el empadronamiento como un derecho fundamental que resulta, en la práctica, ser la llave de acceso a otros derechos como la atención sanitaria, prestaciones y ayudas, educación, permiso de residencia en el caso de personas migradas, ... además de que se ha convertido en un requisito para trámites básicos como abrir una cuenta bancaria o trámites de extranjería. (Anexo 1)

Recordamos que, en la Ley, 7/1985 en su artículo 15, el empadronamiento se define como un derecho y como un deber que tenemos todas las personas que vivimos en un territorio, y que por lo tanto, debe estar garantizado por parte de las administraciones. A pesar de eso desde los colectivos y entidades sociales llevamos tiempo denunciando que en Navarra el acceso al empadronamiento se ha convertido en un privilegio, porque una parte de la sociedad tiene grandes dificultades para conseguir documentos requeridos desde los ayuntamientos.

# QUIÉNES SOMOS

La Coordinadora Antirracista Navarra somos una plataforma en la que participamos alrededor de 20 colectivos y entidades sociales que trabajamos por la defensa de derechos de las personas migradas y racializadas en Navarra. Nuestros objetivos son poner en valor la diversidad cultural, lingüística, racial, étnica que existe en la sociedad navarra; visibilizar y denunciar las discriminaciones racistas y xenófobas y promover propuestas por una convivencia en igualdad de condiciones. Somos un espacio de encuentro y reflexión para la coordinación de acciones y propuestas de futuro que tiene por objetivo integrar el antirracismo en la agenda social y política de Navarra y la puesta en común de aprendizajes y experiencias.




# ESKUBIDEEN GILTZA

## LLAVE A LOS DERECHOS

**NAFARROAKO KOORDINAKUNDE ANTIRRAZISTA** - COORDINADORA ANTIRRACISTA DE NAVARRA